

**JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE  
SEGURANTZA SAILA  
KULTURA SAILA**

**Zk-4094**

117/2001 DEKRETUA, ekainaren 26koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administraziooko hizkuntza-normalkuntzarako neurriak finkatzen dituen.

Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuaren 35.3 artikulua arabera, autonomia erkidegoari dagokio, bere eremuan, Justizia Administraziooko zerbitzura diharduten langileen plazak hornitzea, betiere, Botere Judizialari buruzko Legeak eskumen hori Gobernuari ematen dion modu berberean.

Justizia Administrazioaren zerbitzura diharduten langileen alorrean Autonomia Erkidegoek dituzten eskumenak Botere Judizialari buruzko uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoaren 455. artikuluan daude jasota (lege hori azaroaren 8ko 16/1994 Legeak aldatu zuen). Bestalde, lege horretako 1. xedapen gehigarriko 2. paragrafoan, ahalmena ematen zaie gai horretan eskumena duten autonomia erkidegoei legea garatzeko egin behar diren araudiak onartzeko.

Konstituzio Epaitegiak 1990eko martxoaren 29an eta 2000ko apirilaren 13an emandako 56/1990 eta 105/2000 epaiek, berriz, mugatu eta zehaztu egin zituzten Botere Judizialaren Lege Organikoak emandako manuak, goian aipatuak.

Eskualdaketetarako Bitariko Batzordeak 1996ko otsailaren 16an lortutako akordioa onartzen duen martxoaren 26ko 60/1996 Dekretuaren bitartez, Justizia Administrazioaren zerbitzura ziharduten langileak EAEko administrazioa pasatu ziren, otsailaren 16ko 249/1996 eta otsailaren 23ko 296/1996 Errege Dekretuetan adierazitako eran. Errege Dekretu horien bitartez, Justizia Administrazioaren zerbitzura diharduten ofizial, laguntzaile eta agenteen kidegoei eta auzitegi-ko medikuen kidegoari buruzko araudi organikoak onartu ziren hurrenez hurren.

Justizia Administrazioaren jarduerarako behar diren giza baliabideak beren esku dauzkaten autonomia erkidegoek eskumena izango dute beren eremuan dauden organoen plantillak eta lanpostuen zerrendak finkatzeko eta, hala badagokio, baita lanpostuetan jarduteko behar diren funtsezko baldintzak zehazteko ere, horixe xedatzen baitute otsailaren 16ko 249/1996 Errege Dekretuaren 50. artikuluko 1. eta 2. paragrafoek eta otsailaren 23ko 296/1996 Errege Dekretuaren 16. artikuluko 2. eta 3. paragrafoek.

Araudi organiko horiek hizkuntza-eskakizunaren kontzeptua ere sartzen dute langileen estatutuko arautan, izan ere, euskal herri-administrazioetako hizkuntza normalkuntzako prozesuari buruzko araudira jotzen baitute.

**DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,  
TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL  
DEPARTAMENTO DE CULTURA**

**Nº-4094**

DECRETO 117/2001, de 26 de junio, de medidas para la normalización lingüística de la Administración de Justicia en la Comunidad Autónoma de Euzkadi.

Según el art. 35.3 del Estatuto de Autonomía del País Vasco, corresponderá a la Comunidad Autónoma dentro de su territorio, la provisión del personal al servicio de la Administración de Justicia, en los mismos términos en que se reserva tal facultad al Gobierno en la Ley Orgánica del Poder Judicial.

Por su parte, el artículo 455 de la Ley Orgánica 6/1985, de 1 de julio, del Poder Judicial, modificada por la Ley 16/1994, de 8 de noviembre, establece las competencias que corresponden, en su caso, a las Comunidades Autónomas respecto del personal al servicio de la Administración de Justicia. La Disposición Adicional 1.<sup>a</sup>, apartado 2, de la misma ley habilita a las Comunidades Autónomas con competencias en la materia para aprobar los reglamentos que exija el desarrollo de la ley.

Las sentencias 56/1990, de 29 de marzo y 105/2000, de 13 de abril, del Tribunal Constitucional han delimitado y precisado el alcance de los preceptos de la LOPJ anteriormente citados.

En virtud del Decreto 60/1996, de 26 de marzo, por el que se aprueba el Acuerdo de la Comisión Mixta de Transferencias de 16 de febrero de 1996, se traspa el personal al servicio de la Administración de Justicia en los términos establecidos en los Reales Decretos 249/1996, de 16 de febrero, y 296/1996, de 23 de febrero, por los que se aprueban los Reglamentos Orgánicos de los Cuerpos de oficiales, auxiliares, y agentes al servicio de la Administración de Justicia y del Cuerpo de médicos forenses, respectivamente.

De conformidad con el art. 50, párrafos 1 y 2, del Real Decreto 249/1996, de 16 de febrero, y el art. 16, párrafos 2 y 3, del Real Decreto 296/1996, de 23 de febrero, las Comunidades Autónomas que hayan recibido los trasposos de medios personales para el funcionamiento de la Administración de Justicia, determinarán la plantilla y las relaciones de puestos de trabajo correspondientes a los órganos radicados en su territorio, con indicación, en su caso, de los requisitos esenciales para su desempeño.

Asimismo, los citados Reglamentos Orgánicos introducen, por remisión a la normativa reguladora del proceso de normalización lingüística en las administraciones públicas vascas, el concepto del perfil lingüístico en la regulación del estatuto de este personal.

Aipatutako arauak oinarritzat harturik ematen da Dekretu hau, hizkuntza-eskakizunak ezartzeko irizpideak finkatzeko. Hizkuntza-eskakizun horiek Justizia Administrazioaren agente, laguntzaile eta ofizialen kidegoetako plantilletan eta auzitegiko medikuen kidego-lanpostuen zerrendetan ezarriko dira.

Araudiaren printzipio eta ildo nagusiak finkatzeko, kontuan hartu dira Dekretu honen eraginpean dauden kidegoetako langileen estatutuaren berezitasunak. Beraz, euskara jakitea ezinbesteko baldintza denean jarriko zaie lanpostuei hizkuntza-eskakizuna, merezimenduen, ordea, araudi organikoek diotena beteko da. Hortaz, langileen estatutu juridikoa aldatuz gero, hizkuntza normalkuntzako plana ere berrikusi egin behar da, behar diren egokitzapenak egiteko.

Ondorioz, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren sailburuaren eta Kultura sailburuaren baterako proposamen, Aholku Batzorde Juridikoari entzun ostean, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2001eko ekainaren 26an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

#### XEDATU DUT:

#### I. KAPITULUA XEDAPEN OROKORRAK

**1. artikulua.**– Dekretu honen helburua zera da, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioaren hizkuntza normalkuntzarako neurriak arautzea hiru alorretan:

– Justizia Administrazioaren zerbitzura diharduten funtzionarioen plantilletan eta lanpostuen zerrendetan hizkuntza-eskakizunak nola jarri arautzea.

– Plantilletan eta lanpostuen zerrendetan ezarritako hizkuntza-eskakizunak kontuan hartuta, euskarazko gaikuntza-ikastaroak nola antolatu arautzea.

– Epaitegietako bulegoetan eta fiskaltzetan euskararen erabilera sustatzeko egin beharreko programak arautzea.

#### II. KAPITULUA HIZKUNTZA-ESKAKIZUNAK

**2. artikulua.**– 1.– Lanpostuak betetzeko behar den euskara-mailari dagokionez, dekretu honen eraginpeko lanpostuei euskal herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen araudiko 2., 3. eta 4. hizkuntza-eskakizunak ezarriko zaizkie, horrela baitago xedatuta Justizia Administrazioaren zerbitzura diharduten ofizial, laguntzaile eta agenteen kidegoetako araudi organikoa onartzen duen

En base al marco normativo citado, se dicta el presente Decreto que tiene por finalidad establecer los criterios para la asignación de perfiles lingüísticos en las plantillas de los cuerpos de agentes, auxiliares y oficiales de la administración de justicia y en las relaciones de puestos de trabajo del cuerpo de médicos forenses.

Dado que los principios y líneas generales de la regulación vienen determinados por las peculiaridades del estatuto del personal de los cuerpos afectados por el presente Decreto, la regulación relativa a la asignación del perfil lingüístico a los puestos de trabajo se hace a los únicos efectos de la consideración del conocimiento del euskera como requisito esencial, debiéndose estar a efectos de la consideración del conocimiento del euskera como mérito a lo establecido en los correspondientes reglamentos orgánicos. Por tanto, una eventual modificación del estatuto jurídico del personal determinaría una revisión del plan de normalización lingüística en orden a realizar aquellas adecuaciones que sean procedentes.

En su virtud, a propuesta conjunta del Consejero de Justicia, Trabajo y Seguridad Social y de la Consejera de Cultura, oída la Comisión Jurídica Asesora, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 26 de junio de 2001,

#### DISPONGO:

#### CAPÍTULO I DISPOSICIONES GENERALES

**Artículo 1.**– Es objeto del presente Decreto la regulación de medidas para la normalización lingüística de la Administración de Justicia en la Comunidad Autónoma de Euskadi en tres esferas:

– La ordenación de la asignación de perfiles lingüísticos en las plantillas y relaciones de puestos de trabajo correspondientes a los funcionarios al servicio de la Administración de Justicia.

– La regulación de la provisión de cursos de capacitación lingüística en euskera atendiendo al proceso de asignación de perfiles lingüísticos en las plantillas y en las relaciones de puestos de trabajo.

– La regulación de programas para el fomento del uso del euskera en las oficinas judiciales y fiscalías.

#### CAPÍTULO II PERFILES LINGÜÍSTICOS

**Artículo 2.**– 1.– De conformidad con lo establecido por el Reglamento Orgánico de los Cuerpos de oficiales, auxiliares, y agentes al servicio de la Administración de Justicia y por el Reglamento Orgánico del Cuerpo de médicos forenses, aprobados por Real Decreto 249/1996, de 16 de febrero, y Real Decreto 296/1996, de 23 de febrero, respectivamente, los niveles de competencia lingüística en euskera a considerar para la pro-

otsailaren 16ko 249/1996 Errege Dekretuan eta auzitegiko medikuen kidegoko araudi organikoa onartzen duen otsailaren 23ko 296/1996 Errege Dekretuan.

2.– Hizkuntza-eskakizuna plantilletan eta lanpostuen zerrendetan jasoko da baldin eta kasuan kasuko dotazioan ezinbesteko eskakizuna bada.

3.– Plantilletan eta lanpostuen zerrendetan horrela jasota dagoenean, beraz, hizkuntza-eskakizuna ezinbesteko eskakizun izango da. Beste kasu guztietan euskara jakitea merezimendu izango da, Justizia Administrazioaren zerbitzura diharduten ofizial, laguntzaile eta agenteen kidegoetako araudi organikoan eta auzitegiko medikuen kidegoko araudi organikoan ezarritako eran.

**3. artikulua.**– 1.– Kasuan kasuko araudi organikoan kidego bakoitzari ezartzen zaizkion zereginak kontuan hartuta, hizkuntza-eskakizun hauek ezarriko dira:

Agente judizialak: 2. hizkuntza-eskakizuna.

Laguntzaileak: 2. hizkuntza-eskakizuna.

Ofizialak: 3. hizkuntza-eskakizuna.

Auzitegiko medikuak: 3. edo 4. hizkuntza-eskakizuna, lanpostu bakoitzaren ezaugarrien arabera. Lanpostu bakoitzari zein hizkuntza-eskakizun dagokion lanpostuen zerrendan jasoko da.

2.– Aurreko paragrafoan esandakoa gorabehera, 3. edo 4. hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuak betetzeko prozesuetan, eskatzaile batek ere ez badu behar den hizkuntza-eskakizuna egiaztatzen, dotazioari dagokion hizkuntza-eskakizunaren azpikoa egiaztatzea onartuko da, baina bakar-bakarrik plaza deialdi horretan betetzeko.

**4. artikulua.**– Justizia alorrean eskumena duen sailak ezarriko dizkie hizkuntza-eskakizunak lanpostuei, betiere, ordezkaritza handieneko sindikatuei kontsulta egin eta hizkuntza politikaren alorrean eskumena duen sailaren irizpena jaso ondoren.

**5. artikulua.**– Hurrengo kapituluan ezarritako helburuen eta lehentasunen arabera erabakiko da zenbat hizkuntza-eskakizun ezarriko diren Dekretu hau aplikagarri den eremuko plantilletan eta lanpostuen zerrendetan eta nola banatuko diren.

### III. KAPITULUA HELBURUAK

**6. artikulua.**– 1.– Dekretu honek hartzen duen eremuan hizkuntza-eskakizunak ezartzeko prozesua hamar urteko plangintzaldietan banatuko da, eta horietako bakoitzak 5 urteko bi epealdi izango ditu.

visión de los puestos integrantes del ámbito de aplicación de este Decreto son los perfiles lingüísticos 2, 3 y 4 determinados en la normativa reguladora del proceso de normalización del uso del euskera en las administraciones públicas vascas.

2.– El perfil lingüístico figurará en las plantillas y en las relaciones de puestos de trabajo únicamente en aquellas dotaciones en las que el perfil lingüístico constituya requisito esencial.

3.– Sin perjuicio de la consideración del perfil lingüístico como requisito esencial en los supuestos en que así venga determinado en las correspondientes plantillas y relaciones de puestos de trabajo, el conocimiento de euskera se valorará en todo caso como mérito en los términos previstos en el Reglamento Orgánico de los Cuerpos de Oficiales, Auxiliares y Agentes de la Administración de Justicia y en el Reglamento Orgánico del Cuerpo de Médicos Forenses.

**Artículo 3.**– 1.– De conformidad con las funciones atribuidas a cada uno de los cuerpos en los respectivos Reglamentos Orgánicos se establece la siguiente correspondencia a efectos de asignación de perfil lingüístico:

Agentes Judiciales: perfil lingüístico 2

Auxiliares: perfil lingüístico 2

Oficiales: perfil lingüístico 3

Médicos Forenses: perfil lingüístico 3 o 4, según se determine en la relación de puestos de trabajo en razón de las características de cada puesto de trabajo.

2.– No obstante lo establecido en el párrafo anterior, en los procesos de provisión de puestos de trabajo con perfil lingüístico 3 ó 4, de no acreditarse dicho perfil lingüístico por ninguno de los solicitantes, se aplicará el perfil lingüístico inmediatamente inferior a dicha dotación a los únicos efectos de cobertura en dicha convocatoria.

**Artículo 4.**– La asignación de perfil lingüístico a los puestos de trabajo se realizará por el Departamento competente en materia de justicia, previa consulta a las organizaciones sindicales más representativas y previo informe del Departamento competente en materia de política lingüística.

**Artículo 5.**– El número y la distribución de los perfiles lingüísticos asignados a los puestos de trabajo integrantes del ámbito de aplicación de este Decreto se adecuará a los objetivos y prioridades establecidos en el subsiguiente capítulo.

### CAPÍTULO III OBJETIVOS

**Artículo 6.**– 1.– El proceso de asignación de perfiles lingüísticos a los puestos de trabajo del ámbito de aplicación de este Decreto se ordenará en periodos de planificación de diez años, integrados cada uno de ellos por dos etapas de cinco años.

2.– Epealdi bakoitzaren amaieran, justizia alorrean eskumena duen sailak ebaluazioa egingo du eta hizkuntza politikaren alorrean eskumena duen sailak ebaluazioari buruzko irizpena emango du. Emaitzen arabera, administrazioaren baliabideetan lehentasunak ezarriko dira, hurrengo epealdirako helburuak lortu ahal izateko.

**7. artikulua.**– 1.– Plangintzaldi bakoitzaren amaieran, Dekretu honen eraginpeko lanpostuen dotazioetatik hizkuntza-eskakizuna ezarrita izan behar dutenen portzentajea ez da izango nahitaez bete beharreko indizea baino txikiagoa.

2.– Nahitaez bete beharreko indizea formula honen arabera aterako da: euskaldunen portzentajea + (ia euskaldunen portzentajea/2). Plangintzaldi bakoitzeko kalkulua egiteko, plangintza hasi aurretik egindako azken erroldako edo biztanleria eta etxebizitza estatistikako datuak hartuko dira kontuan, barruti judizial bakoitzean, euskararen jakite-mailari dagokionez.

3.– Hizkuntza-eskakizunak arian-arian ezarriko dira, plangintzaldiko eta epealdiko helburuetan jarritako portzentajeak iritsi arte. Hortaz, justizia alorrean eskumena duen sailak aldiro-aldiro aurkeztuko dizkio Justizia Ministerioari plantillak eta lanpostuen zerrendak aldatzeko proposamenak.

**8. artikulua.**– Barruti bakoitzean nahitaez bete beharreko indizea barruti horretako organo guztietan ezarriko da, salbu eta Auzitegi Nagusian, probintzia auzitegietan eta dekanotzetan, izan ere, horietan, nahitaez bete beharreko indizea kalkulatzeko, organoa bera ez ezik, horren menpe dauden zerbitzu komunak eta laguntza zerbitzuak ere hartuko dira kontuan.

**9. artikulua.**– 1.– Zortzigarren artikuluan aipatutako eremu eta organo bakoitzean nahitaez bete beharreko gutxienezko indizea plangintzaldi bakoitzaren amaierarako beteta ere, hizkuntza-eskakizunak esleitzeko prozesuak ez du zertan bat etorri organo eta eremu guztietan.

2.– Hizkuntza-eskakizunak azkarrago ezarriko zaizkie baldintza egokiak betetzen dituzten lanpostuei, bereziki, erregistro zibiletakoei, jendeari informazioa ematen dioten zerbitzuetakoei, komunikazio egintzen zerbitzu orokorretakoei eta bake epaitegietakoei.

**10. artikulua.**– 1.– Organo baten barruan edo organoak berak, zerbitzu komunek eta laguntza zerbitzuek osatzen duten unitatearen barruan hizkuntza-eskakizunak zeintzuk lanposturi esleitu behar zaizkien ebazteko, alderdi hauek hartuko dira kontuan:

2.– Al final de cada etapa el Departamento competente en materia de justicia realizará una evaluación, que será sometida a informe del Departamento competente en materia de política lingüística y servirá para priorizar los recursos de la administración en la consecución de las metas fijadas para la siguiente etapa.

**Artículo 7.**– 1.– El porcentaje de dotaciones de puestos de trabajo del ámbito de aplicación de este Decreto que deba contar con perfil lingüístico al término de cada período de planificación no será inferior al índice de obligado cumplimiento correspondiente.

2.– El índice de obligado cumplimiento se obtiene de la aplicación de la fórmula  $\% \text{ euskaldunes} + (\% \text{ cuasi-euskaldunes} / 2)$  y se calculará para cada período de planificación a partir de los datos relativos al conocimiento del euskera por la población del último Censo o Estadística de Población y Vivienda a la fecha de inicio de ese período y correspondiente a cada demarcación judicial.

3.– La asignación de perfiles lingüísticos en orden a la consecución de los porcentajes indicativos de los objetivos de etapa y de período de planificación se realizará de forma gradual. A tal efecto el Departamento competente en materia de justicia presentará con carácter periódico a la aprobación del Ministerio de Justicia las pertinentes propuestas de modificación de plantillas y relaciones de puestos de trabajo.

**Artículo 8.**– La aplicación del índice de obligado cumplimiento de cada demarcación se realizará en cada uno de los órganos existentes en la demarcación, salvo en el supuesto del Tribunal Superior de Justicia, de las Audiencias Provinciales y de los Decanatos. En estos casos, la aplicación del índice de obligado cumplimiento se realizará en cada caso sobre el conjunto constituido por el correspondiente órgano y los servicios comunes y servicios de apoyo que dependen del mismo.

**Artículo 9.**– 1.– Sin perjuicio de la consecución, al término de cada periodo de planificación, del objetivo mínimo indicado por el índice de obligado cumplimiento en cada uno de los órganos y ámbitos indicados en el artículo 8, la intensidad del proceso de asignación de perfiles lingüísticos no tendrá por qué ser coincidente en todos los órganos y ámbitos.

2.– La mayor intensidad del ritmo de asignación de perfiles lingüísticos se considerará, en la medida en que concurren circunstancias propicias, en particular respecto de los registros civiles, servicios de información al público, servicios comunes de actos de comunicación y juzgados de paz.

**Artículo 10.**– 1.– En orden a determinar los puestos a los que corresponde asignar perfil lingüístico dentro de un mismo órgano o, en su caso, dentro del conjunto constituido por el órgano y los servicios comunes y de apoyo que dependen del mismo, se ponderarán los siguientes aspectos:

- Laneko jardueran hizkuntza zenbat erabiltzen den.
  - Lanpostuak autonomia handia izatea.
  - Laneko jardueran harreman ugari izaten den eta harreman horiek nolakoak diren.
- 2.– Lanpostu berebereko dotazioen artean lehentasun hauek ezarriko dira:
- 1.a Dagokien hizkuntza-eskakizuna egiaztatu duten titularren dotazioak.
  - 2.a Hizkuntza-eskakizuna ezartzeko eskatu duten titularren dotazioak. Eskari asko egonez gero, funtzionarioik gazteenek izango dute lehentasuna.
  - 3.a Hutsik dauden dotazioak.
  - 4.a Hizkuntza-eskakizuna egiaztatu beharrik ez duten titularren dotazioak (lehentasuna izango dute titular zaharrena duten dotazioek).
  - 5.a Lanpostuaren hizkuntza-eskakizuna kontuan hartuta, euskara-maila altuena duten titularren dotazioak.
  - 6.a Titular gazteenak dituzten dotazioak.
  - 7.a Lanpostuan antzinatasun gurtien duten titularren dotazioak.

#### IV. KAPITULUA HIZKUNTZA-ESKAKIZUNAK EGIAZTATZEA

**11. artikulua.**– 1.– Justizia Administrazioaren zerbitzura diharduten langileek hizkuntza-eskakizunak egiazta ditzaten ezarritako sistema kudeatzeko, justizia alorrean eskumena duen sailak eta Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak egoki ikusten dituzten hiztarmenak egongo dituzte.

2.– Justizia Administrazioako ofizialen, laguntzaileen eta agenteen kidegoetako eta auzitegiko medikuen kidegoko funtzionarioek Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak ezarritako probak gaindituz egiaztatu ahal izango dituzte hizkuntza-eskakizunak. Hizkuntza-eskakizun horiek Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua erregulatzeko duten arauetan daude zehaztuta.

3.– Funtzionario horiek aukera izango dute Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeke aldiro-aldiro egiten dituen probetara aurkezteko.

4.– Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeke berariazko probak egingo ditu kasu hauetan: Justizia Administrazioako ofizialen, laguntzaileen eta agenteen kidegoetan eta auzitegiko medikuen kidegoan sartzeko edo lekualdatze-lehiaketaren bitartez kidego horietako lanpostuak betetzeko Euskal Autonomia Erkidegoan egiten diren hautaketa probetan, betiere, prozesu horietako oinarrietan ezarritakoaren arabera.

- Peso del uso del lenguaje en las tareas a realizar en el desempeño del puesto de trabajo.
  - Mayor grado de autonomía del puesto.
  - Frecuencia y características de las relaciones que se entablan en el desempeño del puesto de trabajo.
- 2.– Entre dotaciones del mismo puesto se seguirán los siguientes criterios de prioridad:
- 1.º Dotación cuyo titular haya acreditado el perfil lingüístico correspondiente.
  - 2.º Dotación cuyo titular haya solicitado la asignación de perfil lingüístico, con preferencia, en caso de concurrencia de solicitudes, de las correspondientes a funcionarios de menor edad.
  - 3.º Dotación vacante.
  - 4.º Dotación cuyo titular esté exento de la obligación de acreditar el perfil lingüístico (con preferencia de aquellas dotaciones cuyo titular tenga mayor edad).
  - 5.º Dotación cuyo titular tenga mayor nivel de conocimiento de euskera en relación al perfil lingüístico.
  - 6.º Dotación cuyo titular tenga menor edad.
  - 7.º Dotación cuyo titular tenga menor antigüedad en el desempeño del puesto de trabajo.

#### CAPÍTULO IV ACREDITACIÓN DE LOS PERFILES LINGÜÍSTICOS

**Artículo 11.**– 1.– Para gestionar el sistema de acreditación de perfiles del personal al servicio de la Administración de Justicia, el Departamento competente en materia de justicia y el Instituto Vasco de Administración Pública articularán los acuerdos que estimen conveniente a tal efecto.

2.– Los funcionarios de los Cuerpos de Oficiales, Auxiliares y Agentes al servicio de la Administración de Justicia y del Cuerpo de Médicos Forenses podrán acreditar el cumplimiento de los perfiles lingüísticos determinados en la normativa reguladora del proceso de normalización del uso del euskera en las Administraciones Públicas Vascas mediante la superación de las correspondientes pruebas que realice a tal efecto el Instituto Vasco de Administración Pública.

3.– Las convocatorias periódicas para la acreditación de perfiles lingüísticos que se realicen por el Instituto Vasco de Administración Pública estarán abiertas a la concurrencia de los referidos funcionarios.

4.– El Instituto Vasco de Administración Pública realizará pruebas de acreditación de perfiles lingüísticos en los términos establecidos por las convocatorias de procesos selectivos de ingreso, y de concursos de traslado para la provisión de puestos correspondientes a los Cuerpos de Oficiales, Auxiliares y Agentes al Servicio de la Administración de Justicia y al Cuerpo de Médicos Forenses en la Comunidad Autónoma de Euskadi.

5.- Funtzionarioek egiaztatutako hizkuntza-eskakizunen balioari eta eraginari dagokionez, apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuan ezarritako araubide orokorra aplikatuko da, dekretu horren bitartez arautzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua.

**12. artikulua.**— 1. artikuluan aipatzen diren langileek egiaztatutako hizkuntza-eskakizunak Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen Hizkuntza-eskakizunen Erregistroan jasoko dira.

#### V. KAPITULUA SALBUESPEN ARAUAK

**13. artikulua.**— 1.— Hizkuntza-eskakizuna ezartzen zaizen dotazioen titularrei apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 42.etik 52.era bitarteko artikuluetan jasotako salbuespen-arauak ezarriko zaizkie aldaketa batekin: 45 urtetik gorako salbuespenari dagokionez, plangintzaldiko epealdi bakoitzaren hasierako adina hartuko da kontuan.

2.— Halaber, hizkuntza-eskakizuna ezarrita duten dotazioen titularrek, alde aurretik oinarritzko hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta ez badute, bost urtez salbuespena egongo dira, plantillan edo lanpostuen zerrendan hizkuntza-eskakizuna ezarri den unetik aurrera. Lehenengo paragrafoaren ondorioetarako, salbuespenaldi hori euskal herri-administrazioetan derrigortasun data jartzetik data hori iritsi arte dagoen tartearen parte izango da.

#### VI. KAPITULUA EUSKARA IKASTAROAK

**14. artikulua.**— 1.— Justizia alorrean eskumena duen sailak neurri egokiak hartuko ditu Justizia Administrazioaren zerbitzura diharduten funtzionarioetatik dekretu honetan aipatzen direnei hizkuntza prestakuntza emateko.

2.— Hirugarren hizkuntza-eskakizunera arteko ikastaroak Helduen Alfabetatze Berreuskalduntzerako Erakundeak (HABE) emango ditu. Laugarren hizkuntza-eskakizuna prestatzeko ikastaroak, berriz, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen bitartez emango dira.

**15. artikulua.**— Justizia alorrean eskumena duen sailak Justizia Administrazioarekiko Harremanetarako Zuzendaritzaren bitartez aldiro-aldirotan antolatzen dituen euskara ikastaroetara nortzuk joango diren erabakitzeke, lehentasun-irizpide hauek erabiliko dira:

— Hizkuntza-eskakizuna funtsezko eskakizun duten dotazioetako funtzionarioak.

5.— A los perfiles acreditados por estos funcionarios les será de aplicación, respecto a su validez y efectos, el régimen dispuesto con carácter general en el Decreto 86/1997, de 15 de abril, por el que se regula el proceso de normalización del uso del euskera en las administraciones públicas de la Comunidad Autónoma de Euzkadi.

**Artículo 12.**— Los perfiles lingüísticos acreditados por el personal al que se refiere el artículo 1 se inscribirán en el Registro de Perfiles Lingüísticos constituido en el Instituto Vasco de Administración Pública.

#### CAPÍTULO V RÉGIMEN DE EXENCIONES

**Artículo 13.**— 1.— Será de aplicación a los titulares de las dotaciones afectadas por la asignación de perfil lingüístico el régimen de exenciones previsto en los artículos 42 al 52 del Decreto 86/1997, de 15 de abril, con la particularidad de que la exención por edad superior a 45 años se referirá al comienzo de cada etapa del periodo de planificación.

2.— Asimismo, los titulares de dotaciones afectadas por la asignación de perfil lingüístico que no tengan previamente acreditado el perfil lingüístico esencial gozarán de una exención temporal por un plazo de cinco años, que se computará desde el establecimiento del perfil lingüístico en la plantilla o relación de puestos de trabajo. A los efectos contemplados en el párrafo 1, este plazo de exención temporal tendrá la misma consideración que el intervalo temporal entre el momento de la asignación de la fecha de preceptividad y el vencimiento de dicha fecha en las administraciones públicas vascas.

#### CAPÍTULO VI CURSOS DE CAPACITACIÓN LINGÜÍSTICA

**Artículo 14.**— 1.— El Departamento competente en materia de justicia adoptará las medidas adecuadas para facilitar la capacitación lingüística de los funcionarios al servicio de la Administración de Justicia a que se refiere el presente Decreto.

2.— Los cursos de capacitación lingüística hasta el perfil lingüístico 3 se impartirán a través del Instituto de Alfabetización y Reeskaldunización de Adultos (HABE). A su vez, los cursos de capacitación lingüística para el perfil lingüístico 4 se impartirán a través del Instituto Vasco de Administración Pública (IVAP).

**Artículo 15.**— La selección de los funcionarios que vayan a concurrir a los cursos de capacitación lingüística que periódicamente convoque el Departamento competente en materia de justicia a través de la Dirección de Relaciones con la Administración de Justicia, se realizará en función del siguiente orden de prioridad:

— Funcionarios cuya dotación ha resultado con perfil lingüístico como requisito esencial.

– Euskara ondoen dakiten funtzionarioak (kidegoari dagokion hizkuntza-eskakizunetik hurbilen daudenak). Horien barruan lehentasuna izango dute euskarren erabilera sustatzeko esperientzia pilotuetan parte hartzen ari direnek.

– Euskara-maila berbera dutenen artean, lantokian antzinatasun gehien dutenek izango dute lehentasuna.

– Euskara-maila eta lantokian antzinatasun berbera dutenen artean, lehentasuna izango dute justizia-alorrean eskumena duen sailak aurreko ekitaldietan antolatutako ikastaroak ondoen aprobetxatu dituztenek.

– Aurreko irizpideak nahiko ez badira, funtzionario gazteenek izango dute lehentasuna.

**16. artikulua.**– 1.– Justizia-alorrean eskumena duen sailak prestatutako euskara-ikastaroetara joateko baimena eskuratzen duten funtzionarioei hizkuntza-prestakuntzako banakako plana egingo zaie. Plan hori sailak berak burutuko du.

2.– Planak honako hauek jasoko ditu:

– Hasierako euskara-maila eta lortu beharreko hizkuntza-eskakizuna.

– Prestakuntzaldiaren iraupena, hau da, hartu beharreko klase-orduen kopurua.

– Egutegia.

– Funtzionarioaren onespina.

3.– Prestakuntzako banakako planen iraupena bost urtekoa izango da gehienez. Iraupena planean bertan zehaztuko da, kasuan kasu.

**17. artikulua.**– Justizia-alorrean eskumena duen sailak antolatutako ikastaroetara lan-orduetan joateko baimenak mugatuak izango dira. Hain zuzen ere, Justizia Administrazioaren zerbitzura diharduten langileek euskara-ikastaroetan parte hartzeko erregimenaren arauetan zehaztutakoa izango da muga hori.

## VII. KAPITULUA

### BULEGO JUDIZIALEAN ETA FISKALTZETAN EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO EGITASMOAK

**18. artikulua.**– Justizia-alorrean eskumena duen sailak euskara sustatzeko esperientzia pilotuak sustatuko ditu bulego judizialean, organo eta zerbitzu judizialean eta fiskaltzetan, baldin eta toki horietako egoera egokia bada esperientziok abian jartzeko.

**19. artikulua.**– Esperientzia horietan, gaitasuna duen eta prest dauden funtzionarioek eguneroko lana euskaraz egingo dute berariaz aukeratutako organoetako

– Funcionarios con mayor nivel de conocimiento de euskera (menor distancia respecto al perfil lingüístico correspondiente al cuerpo), con preferencia de aquellos inmersos en experiencias piloto de fomento del uso del euskera.

– Entre funcionarios solicitantes con el mismo nivel de conocimiento de euskera, preferencia de aquellos con mayor antigüedad en el centro de trabajo.

– Entre funcionarios con el mismo nivel e idéntica antigüedad en el centro de trabajo, preferencia de aquellos con mayor grado de aprovechamiento de los cursos de euskera ofertados en ejercicios anteriores por el Departamento competente en materia de justicia.

– De resultar insuficientes los criterios anteriores, preferencia de los funcionarios de menor edad.

**Artículo 16.**– 1.– Las autorizaciones para asistencia a los cursos de capacitación lingüística convocados por el Departamento competente en materia de justicia estarán ligadas a un plan individualizado de formación lingüística elaborado por el Departamento para cada funcionario asistente a dichos cursos.

2.– El plan estará integrado por los siguientes elementos:

– determinación del nivel de competencia lingüística inicial perfil lingüístico a alcanzar.

– tiempo estimado de formación expresado en horas de clase a recibir.

– calendario.

– aceptación del funcionario.

3.– El intervalo temporal máximo de los planes individualizados de formación será de cinco años, concretándose en cada uno de los planes el intervalo temporal preciso para cada caso.

**Artículo 17.**– El número de autorizaciones para asistencia a cursos de euskera en horario laboral organizados por el Departamento competente en materia de justicia se ajustará al límite establecido en la normativa reguladora del régimen de asistencia a cursos de euskera del personal al servicio de la Administración de Justicia.

## CAPÍTULO VII

### PROGRAMAS PARA EL FOMENTO DEL USO DEL EUSKERA EN LA OFICINA JUDICIAL Y FISCALÍAS

**Artículo 18.**– El Departamento competente en materia de justicia programará experiencias piloto de fomento del uso del euskera en la oficina judicial en aquellos órganos y servicios judiciales así como en las Fiscalías en que concurren circunstancias que favorezcan y hagan viable el desarrollo de tales experiencias.

**Artículo 19.**– Estas experiencias consistirán en desarrollar en euskera, con apoyo de un traductor y un dinamizador lingüístico, por parte de los funcionarios que

bulegoetan. Horretarako, hainbat baliabide eskainiko zaizkie: itzultzaile baten eta hizkuntza-trebatzaile baten laguntza, agiri normalizatuaren eredu informatizatuak, laguntza informatikoa, osagarriko euskara-ikastaroak eta euskarazko terminoen glosategi bat.

**20. artikulua.**– 1.– Esperientzia pilotu horiek abian jarri aurretik, zein organotan ezarriko diren erabakiko da. Esperientzia abian jartzeko, hortaz, nahitaezkoa izango da organo judicial edo fiskaltza jakin horretan beren lanpostuko zereginak betetzeko adinako euskara-maila duten aski funtzionario egotea eta behar beste dotazioak nahitaezko hizkuntza-eskakizuna ezarrita izatea.

2.– Halaber, neurri egokiak ezarriko dira lana behar bezala banatzeko, erabilera-esperientzietan parte hartzen duten funtzionarioek lanpetuegi egon ez daitezen, hori zigortzea izango bailitzateke.

3.– Esperientzia abiarazteko eta euskararen erabilera sustatzeko neurriak jartzeko, beharrezkoa izango da gobernu-organo eskudunen onespena eta epailearen idazkarien, epaile edo magistratuen edo fiskalen adostasuna.

#### XEDAPEN GEHIGARRIAK

**Lebenengoa.**– Dekretu honetan hizkuntza-eskakizunak ezartzeko aurreikusten den lehenengo plangintzaldia Dekretua indarrean jartzen den egunean bertan hasiko da.

**Bigarrena.**– Hirugarren hizkuntza-eskakizuna lortu arteko euskara ikastaroak antolatzeke eta emateko, lankidetzak-hitzarmenak egingo dira Helduen Euskalduntze Berreuskalduntzerako Erakundearekin (HABE).

Hitzarmen horiek helburu hauek izango dituzte:

– Justiziako funtzionarioei ezarritako hizkuntza-eskakizunetako oinarriko edukiei doituako programak eta materialak egitea, egokitzea eta homologatzea.

– Justiziako funtzionarioentzako ikastaroak ematea, 2. eta 3. hizkuntza-eskakizunetan eskatzen den gaitasuna lor dezaten.

– Justiziako funtzionarioei autoikaskuntzarako baliabideak eskaintzea, euskara ikas dezaten.

**Hirugarrena.**– Epaile eta magistratuei, epaileen idazkariei eta fiskalei dagokienez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak eta Aginte Judicialaren Kontseilu Nagusiak edo Justizia Ministerioak hizkuntza normalizatzaren alorrean sinatutako edo sinatzen hitzarmenetan, 2., 3. eta 4. hizkuntza-eskakizunak hartuko dira kontuan.

estén capacitados y dispuestos a ello, el trabajo cotidiano de la oficina de los órganos previamente acordados, poniendo a disposición de los mismos modelos informatizados de documentos normalizados, apoyo informático, cursos de euskera complementarios y un glosario de términos en euskera.

**Artículo 20.**– 1.– Con anterioridad a la puesta en marcha de las experiencias piloto, se seleccionarán los órganos en los cuales establecer estas experiencias. Para ello, será necesaria la existencia en el órgano judicial o en la Fiscalía de un número de funcionarios con conocimiento de euskera suficiente para el desarrollo de las tareas de sus puestos de trabajo y de un número suficiente de dotaciones con perfil lingüístico preceptivo asignado.

2.– Asimismo, se establecerán las medidas necesarias para el reequilibrio del trabajo entre los funcionarios afectados por las experiencias de uso, de cara a su no penalización por un exceso de trabajo.

3.– El desarrollo de la experiencia así como el establecimiento de las pautas para incentivar el uso del euskera requerirá la aprobación de los órganos de gobierno competentes y la conformidad de los Secretarios Judiciales, Jueces o Magistrados o, en su caso Fiscal, correspondientes.

#### DISPOSICIONES ADICIONALES

**Primera.**– La fecha inicial del primer período de planificación del proceso de asignación de perfiles lingüísticos previsto en este Decreto será la correspondiente al día de entrada en vigor del presente Decreto.

**Segunda.**– Para articular y materializar la capacitación lingüística hasta el nivel correspondiente al perfil lingüístico 3 se procederá a la firma de un Convenio de Colaboración con el Instituto de Alfabetización y Reuskaldunización de Adultos (HABE).

Dicho Convenio podrá tener por objeto materias tales como:

– Elaboración, adecuación y homologación de programas y materiales didácticos que se ajusten a los contenidos básicos de cada perfil correspondientes a los funcionarios judiciales.

– Impartición de cursos destinados a los funcionarios judiciales dirigidos a la superación de los niveles de competencia requeridos por los perfiles lingüísticos 2 y 3.

– Provisión de medios para el autoaprendizaje de euskera destinados a los funcionarios judiciales.

**Tercera.**– A los efectos de las actuaciones que la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi pueda desarrollar en relación con Jueces y Magistrados, Secretarios Judiciales, y Fiscales en el marco de convenios de normalización lingüística o de formación suscritos o que puedan suscribirse con el Consejo General del Poder Judicial y el Ministerio de Justicia, se tomarán en consideración los perfiles lingüísticos 2, 3 y 4.



## INDARGABETZEKO XEDAPENA

Indarrik gabe uzten dira Justizia Administrazioaren zerbitzura diharduten ofizialen, laguntzaileen eta agenteen kidegoetako funtzionarioek eta auzitegiko medikuen kidegoko funtzionarioek hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeke era arautzen duen martxoaren 11ko 49/1997 Dekretua eta dekretu honen aurka dauden gainerako xedapenak, bai maila berekoak, bai behegaroak.

## AZKEN XEDAPENAK

*Lehenengoa.*— Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza sailburuak eskumena izango du dekretu honetan ezarritakoa gauzatzeko eta garatzeko behar diren xedapenak emateko.

*Bigarrena.*— Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren bihar-munean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2001eko ekainaren 26an.

Lehendakaria,  
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza sailburua,  
SABIN INTXAURRAGA MENDIBIL.

Kultura sailburua,  
M.ª CARMEN GARMENDIA LASA.

## Agintariak eta Langileria

### Izendapenak, Egoerak eta Gorabeherak

#### JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

##### Zk-4095

8/2001 DEKRETUA, uztailaren 16koa, lehendakariarena, Jaurlaritzako lehendakariordeak eta sailburuek euren egitekoak utz ditzatela xedatzen duena.

Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren 33.2 artikuluan eta Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 8.b) artikuluan ematen zaizkidan eskumenez baliatuz, hauxe

## DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Quedan derogados el Decreto 49/1997, de 11 de marzo, sobre acreditación del cumplimiento de los perfiles lingüísticos por los funcionarios de los Cuerpos de Oficiales, Auxiliares y Agentes al servicio de la Administración de Justicia y por los funcionarios del Cuerpo de Médicos Forenses, y aquellas otras disposiciones de igual o inferior rango que se opongan a lo establecido en el presente Decreto.

## DISPOSICIONES FINALES

*Primera.*— Se faculta al Consejero de Justicia, Trabajo y Seguridad Social para dictar las disposiciones necesarias para la ejecución y desarrollo de lo establecido en el presente Decreto.

*Segunda.*— El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 26 de junio de 2001.

El Lehendakari,  
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Justicia, Trabajo y Seguridad Social,  
SABIN INTXAURRAGA MENDIBIL.

La Consejera de Cultura,  
M.ª CARMEN GARMENDIA LASA.

## Autoridades y Personal

### Nombramientos, Situaciones e Incidencias

#### PRESIDENCIA DEL GOBIERNO

##### Nº-4095

DECRETO 8/2001, de 16 de julio, del Lehendakari, por el que se declara el cese en sus funciones de la Vicepresidenta y de los Consejeros y Consejeras del Gobierno.

En virtud de las facultades que me atribuye el artículo 33.2 del Estatuto de Autonomía y el artículo 8.b) de la Ley 7/1981, de 30 de junio, de Gobierno.